

GORBEIA INGURUAK

# ESKUALDEKO LANDA GARAPEN PROGRAMA 2015-2020




*Mairuelegorreta* LGE | *Hazi* | *Eusko Jaurlaritza*

## AURKIBIDEA


1. **SARRERA**
    - 1.1. Zer da LGP
    - 1.2. Zertarako prestatu dugu LGP
    - 1.3. Zergatik eguneratzen da orain
    - 1.4. LGPren esparrua (landa-eremuak)
2. **TESTUINGURUA**
    - 2.1. Aurreko LGPren ebaluazioa: ondorioak
    - 2.2. EAEko Landa-Garapenaren ildoak
3. **METODOLOGÍA**
    - 3.1 LGPK PRESTATZEKO METODOLOGIA
        - 3.1.1 Prozesua antolatu eta abian jartzea
        - 3.1.2 Egoeraren diagnostikoa
        - 3.1.3 Estrategia zehaztea. Eskualdeko esparru estrategikoa
        - 3.1.4 Lankidetza-ekimenak
        - 3.1.5 Prozesuaren mapa
    - 3.2 GARATZEKO METODOLOGIA
4. **ABIAPUNTUKO DIAGNOSTIKOA**
    - 4.1. AMIA eguneratua
    - 4.2. Balio diferentziala
    - 4.3. Garapenerako oztopoak
5. **ESPARRU ESTRATEGIKOA**
    - 5.1. Mapa estrategikoa
    - 5.2. Arlokako fitxak
6. **ERANSKINAK**
    - 6.1. Landatasun mailak
    - 6.2. Urteko Kudeaketa Planaren eredua
    - 6.3. Dokumentua egiten parte hartu duten eragile-sarea
    - 6.4. Eskualdeko plan eta programak
    - 6.5. Eskualde gaineko plan eta programak
    - 6.6. Adierazleen definizioak

## 1. SARRERA

**Landa Garapenerako Programa (LGP)** berria eguneratu eta zehazteko **Gorbeia Inguruak/Estribaciones del Gorbea** burutu den hausnarketa- eta prestaketa-prozesuaren azken emaitzak biltzen ditu agiri honek. **Mairuelegorreta Landa Garapenerako Elkarteak (LGE)** zuzendu du prozesua, **Haziren** eta **Eusko Jaurlaritzaren** babesarekin eta laguntzarekin.

### 1.1. Zer da LGP

**Plangintza estrategikorako** eta kudeaketa iraunkorrerako tresna bat da, **Euskadiko landa-ingurunearen garapenerako 10/1998 Legean** (lurraldeko funtzioaniztasuna eta oreka zaintzeko sortua) jatorria duena. Bertan jasotzen denez "… Bereziki Euskal Herriko Landa ingurunea garatzera orientatzen diren politikek landa ingurunearen garapenerako programen forma hartuko dute

Eskualdeko landa-ingurunearen antolamendua eta kudeaketa iraunkorra egiteko tresna da LGP agiria. Asmo hori burutzeko, ezinbestekoa da tartean diren eragile guztien inplikazioa eta konpromisoa, egun dauden baliabideak egoki erabiltzea, eta eskualdearen garapen integralik onena bermatzera bideratutako estrategia eta ekimen zehatzak lantzea.

### 1.2. Zertarako prestatu dugu LGP

Eskualde bakoitzeko landa-inguruneen garapenean lagundu nahi duten erakunde, administrazio eta pertsona guztiek (era guztietako baliabideekin: ekonomikoak, giza baliabideak, instalazioak...):

- Argi izan dezaten zein diren landa-inguruneetako beharrei eta kezkei erantzuteko eskualde bakoitzean identifikatutako apustu nagusiak.
- Dinamizaziorako tresna komun bat izan dezaten, programan jasotako jarduerak abian jartzea bizkortzeko eta bermatzeko.
- Lanerako oinarrizko dokumentua izan dezaten, landa-garapenaren alde lan egiten duten erakunde eta administrazio orotan.

Honako hau lortu nahi dugu LGPren bidez:

- Pertsonen eta erakundeen inplikazioa eta konpromisoa euren eskualdearen garapenarekin.
- Eskualdean eta eskualdez gaindi, balioa sortzeko prozesuak arintzea.
- Kooperazio-ekimenak sortu, bultzatu eta garatzeko ohitura sortzea.
- Landa-garapen aktiboa eta dinamikoa ekarriko duten eremuak eskaintzea.
- Eskualdeen landa-garapenerako estrategiak egituratzea, landa-garapenerako elkarteen (LGE) bidez.
- Landa-eremuan aritzen diren administrazioen arteko koordinazioa hobetzea, batzuen eta besteen politikak zehaztu eta burutzerakoan.
- Landa Garapenerako Euskal Sarea berreskuratu eta indartzea, EAE osoan landa-garapenerako estrategiak garatu eta sortzeko.

### 1.3. Zergatik eguneratzen da orain

Landa-garapenerako programak eguneratzeko beharra dago, arrazoi hauek direla-eta:

a) **Aurreko LGPk 2007an prestatu ziren,** eta ordutik hona aldaketa handiak izan dira landa-eremuetako biztanleriari eta sozioekonomiari lotutako dinamiketan. Hala, arazo eta

gabezietako batzuk gaindituta daude gaur egun; beste batzuk konpondu ahal izateko apustu serioa eta egituratua behar da oraindik ere, eta inguruneari lotutako garapen-aukera eta mehatxu berriak ere sortu dira. Horren adibidea da, esaterako, gaur egun bizi dugun krisia, zeharo baldintzatu baitu garapen sozioekonomiko orokorra eta, bereziki, landa-eremuarena. Horregatik guztiagatik, premiazkoa da gaur egungo egoerari buruzko hausnarketa egitea, gero landa-garapenerako gidalerroak zehazten jarraitzeko.

b) Prozesu hori bat dator denboran landa-garapenari lotutako dekretu berriak dakartzan **Europako Finantza Esparruko 2015-2020 aldirako Landa Garapen Iraunkorrerako Programarekin**. Apropos bilatu dugun aldiberekotasun horren bidez, koherentzia handiagoa eman nahi diegu landa-garapenerako plangintza eta tresnei.

- Izan ere, **LGPak aldi berean eguneratu dira EAEko 18 landa-eskualdeetan**. Horri esker, burutu beharreko prozesuak era koordinatuagoan, integratuagoan eta koherenteagoan kudeatu ahal izango dira, eta lankidetza-estrategiak identifikatu eta txertatzeko aukera egongo da. Gai erkideei batera helduz, eraginkortasun handiagoa lortuko dugu; irismen, kalitate eta efizientzia handiagoko irtenbideak ahalbidetuko ditugu; eta inplikatutako sailen arteko ardurakidetasuna bultzatuko dugu. Izan ere, horrela jokatuz, sail bakoitzak gure landa-eremuetarako dituen programak eta politikak egungo errealitatera eta etorkizuneko ikuspegira egokitu ahal izango dira.

- Eguneratze-prozesu honen emaitzak, LGP 2015-2020 berrian jasotako ildo estrategikoekin batera, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren **erreferentziak izango dira, landa-inguruneetako laguntza-politikak zuzentzeko garaian**.

## *2.1.* LGPren esparrua: landa-eremuak

Eskualdeko biztanleriaren bilakaera oso positiboa izan da 2007-2014 aldian; gainera, landa-eremuko biztanleriaren batez besteko igoera (% 10,45) Arabakoa (% 5,44) eta EAEkoa (% 7,99) baino askoz handiagoa da[1].

Eskualdeko komunikazio-sarea ona da eta, gainera, Gasteiztik gertu dago, Aramaioko udalerria salbu. Hori dela eta, gertuko hiri-eremuetako jende asko joan da eskualdera bizitzera eta bigarren etxebizitza eskualdean zuen jendea ere hara joan da betiko bizitzera. Eskualdean maila ertain eta handiko familiak bizi dira, landa-eremura etxebizitza handiagoen bila joan direnak (lorategi pribatua eta kalitateko zerbitzuak), eskualdetik kanpo lan eginez lortzen dituzten errentei esker ordaintzeko aukera baitute. Era horretako egoeretan gerta daiteke, ordea, hiri-eremuetatik gertu dauden herriak lo-herri bihurtzea eta, ondorioz, biztanle berriek, batetik, udalerriko gainerako biztanleekin ez parte hartzea eta harremanik ez izatea; eta bestetik, eskualde-kohesiorik eta pertenentzia-sentimendurik ez izatea.

Zuiakaria aldizkaria eta urteroko egutegia bateratzeko eta eskualde barruko komunikazioa hobetzeko tresna garrantzitsuak izan dira. Egutegia eskualdeko etxe guztietan banatzen da, eta informazio hau dauka: sei udalerrietako azokak eta festak, oinarrizko eta aisiako zerbitzuak, nekazaritza-elikagaien ekoizleak, artisauak, tabernak eta jatetxeak.

[1] *Erakundeen datuak lortzea zaila denez, datu demografikoei dagokienez, G1 eta G8 bitarteko landatasuna duten entitateei buruzko datuen batukaria hartu dugu aintzat; eta gainerako datuei dagokienez, berriz, G1 eta G8 bitarteko landatasuna duten udalerri guztietako datuen batukaria.*

Jarduera ekonomikoari dagokionez, eskualdeko joera bat dator Arabakoarekin eta EAEkoarekin: zerbitzu-sektoreko arduraldiak gora egin du pixka bat, eta baita lehen sektorekoak ere; aldiz, eraikuntzan eta bigarren sektorean behera egin du.

Eskualdeko udalerri guztietako biztanleko BPGd-ren (barne-produktu gordinaren eta biztanle-kopuruaren arteko erlazioaren) bilakaera negatiboa da (salbu Arratzua-Ubarrundiakoa), hau da, eskualdean jarduera ekonomikoak behera egin du. Udalerri guztietako batez besteko errenta pertsonalaren bilakaera, berriz, positiboa izan da, hau da: biztanleek udalerritik eta eskualdetik kanpo lan egiten dute, errentak kanpoan lortzen dituzte.

Eskualdean, Legutiok du langabezia-indizerik handiena, Arabako eta EAEko batezbestekoen oso antzekoa. Gainerako udalerrietako langabezia-tasak txikiagoak dira.

Hezkuntzari dagokionez, Lehen Hezkuntza udalerri guztietan eskaintzen dute; Bigarren Hezkuntza, berriz, Duran eta Murgian baino ez. Horrek eskualdea zatitu egiten du, familia gehienek Gasteizera joatea erabakitzen dutelako eta, ondorioz, deserrotu egiten direlako.

Gizarte Zerbitzuen arloan eskaintza pribatu zabala dago (hitzartutako leku asko), eta sektore publikoan premiak betetzen joan dira; Zigoitiako eguneko zentroan, adibidez, 2010. urtean 20 leku gehiago jarri zituzten.

Gaur egun sei udalerriek dute gizarte-, kultura- eta kirol-zentroa; zentro horiek harrera ona dute eta askotariko jarduerak eskaintzen dituzte: ludoteka, liburutegia, gimnasioa, tailer-gela eta abar.

Jarduera ekonomikoari dagokionez, turismo-arloan aurrerapen asko gertatu dira. Izan ere, Gorbeiako Inguruetako (Araba) eta Gorbeialdeko (Bizkaia) eskualdeekin batera lan egitea lortu dute eta helmuga turistiko bakarra sortu dute: GORBEIA. Gauzak horrela, turismo-jarduera zehatzagoa, egituratuagoa eta eskualdeko landa-eremuetarako errentagarriagoa da.

- Eskualdeko produktu turistikoa identifikatzeko eta zehazteko lan egiten ari dira eta erakunde publiko eta agente pribatuen arteko lan koordinatua sustatzen da.
- Dauden azpiegitura turistikoak sustatzeko eta zehaztutako produktuarekin bat datozen zerbitzu berriak sortzeko ahalegina egiten da.
- Eskualdeko turismo-mahaia sortu eta martxan jarri da, partaide publiko eta pribatuekin, eta mahai horretan Urteko Turismo Plana aurkezten eta onartzen da urtero; plan horretan Gorbeiako lau lan-arloetako jarduera-ildoak biltzen dira (lehiakortasuna, produktua, estrategia eta marketina).



Lankidetza-proiektuetan ere parte hartu dute modu aktiboan, beste erakunde eta eskualde batzuekin: Landa Turismo Arduratsuaren Sare Berdearekin eta Euskadi Gastronomika Klubarekin, esatera batera; azken horrekin, proiektua Gorbeia Produktu Gastronomikoaren Kluba sortzea izan da.

Lehen sektorean, ustiategi-kopuruei eutsi egin diete, behar baino lehenagoako txandaketak bideratu dira eta Gaztenek laguntza-programaren bidez jende berria sartu da.

Arlo horretan, LGEk gai hauek landu ditu batez ere: prestakuntza, sentsibilizazioa eta tokiko produktuak baloratzea. Hainbat lankidetza-proiektutan parte hartu dute: Mendinetekin Gustum proiektuan eta Hazirekin Nekazariak Eskolan programan. Horrez gain, eskualdeko ekoizle eta artisauei eta haien produktuei buruzko liburuxka bat argitaratu da eta eskualdeko etxe guztietan banatu da; gaur egun turismo-bulegoan dago eskura.

Ekintzaileei laguntzeko eta ekintzailetza sustatzeko jarduerak ere nabarmenak dira:

- Prestakuntza-ekintzak.
- Banan-banako tutoretza eta aholkularitza, negozio- eta bideragarritasun-plana egiteko.
- Eskualdeko Enplegu Plana zehaztea eta garatzea, Lanbideren eskutik (2012).
- Eskualdeko landa-eremuan enpresak sortzeko eta daudenak berritzeko eta modernizatzeko laguntzak bilatzen eta bideratzen laguntzea.




Azkenik, Mairuelegorreta LGEk genero-ikuspegia kontuan hartzen du beti eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko ekintzak antolatzen ditu:

- LGEren babesarekin urtero argitaratzen den paretako egutegian emakumeekin zerikusia duten egun garrantzitsuak jartzea, adibidez: Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna (martxoak 8), Zuiako Kuadrillako Emakumeen Topaketa (ekainak 5) eta Genero Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna (azaroak 25).
- Landa-eremuko Emakumeen Nazioarteko Egunaren berri ematea eta segimendua egitea. 2013. urtean Duranan bildu ziren.




- Azken aldian partikularrei eta/edo enpresei izapidetutako laguntza-eskarien % 49, zehazki 56 eskari, emakumeenak ziren.

Hurrengo aldirako erronka nagusia sektore ekonomiko guztiak modu arduratsu eta jasangarrian sustatzea da, eskualdeko sektore, pertsona, erakunde eta baliabide guztien arteko sinergiak aprobetxatuz. Halaber, asmoa da sektore publikoaren eta sektore pribatuaren arteko benetako koordinazioa eta partaidetza bultzatzea, eskualdeko errealitatea eta premiak (zerbitzuak) aintzat hartuta.

#### ***3.1.1 –*** Prozesua antolatu *eta abian jartzea*

Gorbeia Inguruetako eskualdean bi tailer egin dira: bata martxoan, Duran, Batzarreko kide eta ordezkari guztiekin; eta bestea apirilean, Ondategin, agente-sarearekin (guztira 41 lagunek parte hartu dute). Tailerrak egin ondoren, landutako informazioa dokumentu batean jaso eta banatu egin zen, telematikoki ekarpenak biltzeko; ekarpenak dokumentu honetan sartuta daude.

- *Prozesuaren berri ematea*

LGPak egiteko eta ondorioak ateratzeko prozesu guztiaren berri emateko bi komunikazio-maila zehaztu dira:

1) Eskualdeko web-orrian argitaratzea: http://www.cuadrillazuia.com/ADRMairuelegorreta. Prozesuaren aurrerapausoen eta azken emaitzaren berri emango da (dokumentu honetan).

2) Urte hasieran Batzarrean aurkeztea, Kudeaketa Planarekin batera.

### *3.2. Garatzeko metodologia*

Eskualdeko LGPk aplikatzen egin ditugun urteetan ikasi dugun gauza garrantzitsuena da LGPak egiteko metodologiaz gain egoki egikaritzeko jarraibideak ere zehaztu behar direla.

Helburua da programa hauek dokumentu biziak izatea, eskualdeko agenteek jardueretan parte hartzea eta ekitaldi honetan egikaritze-maila handitzea.

Fase honetan programak NORK eta NOLA gauzatzen dituen oso garrantzitsua da. Hori dela eta, funtsezkoa da honako hauek zehaztea:

- Zer agentek parte hartzen duten.
- Agenteak nola taldekatu beharko liratekeen.
- Talde bakoitzak zer funtzio beteko lituzkeen.

- Taldeak nola antolatzen diren.

Horretarako, programa egikaritzeko oinarri metodologiko komun bat ezarri dugu. Dena den, metodologia hori eskualdeek haien premien eta errealitatearen arabera moldatu ahal izango dute.

Programa egikaritzeko koadroan eskualdeko eta eskualdez gaindiko lan-foroak bildu ditugu. Eskualdez gaindikoek elkarlanean aritzea eta lanerako jarraibide eta estrategia bateratuak zehaztea erraztuko dute.

Esan bezala, eskualdeek, haien errealitatearen arabera, lan-eskema horri estuago edo lasaiago hel diezaiekete. Horregatik, taulan, gutxienez bete beharreko konpromisoez gain, talde osagarriak sortu nahi izanez gero kontuan har daitezkeen iradokizunak bildu ditugu.

LGPk gauzatzeko Urteko Kudeaketa Planak zehaztuko dira. Dokumentu horietan LGPtan aldi osorako jarritako helburuak betetzeko urtero egin beharreko jarduerak jasoko dira. Alde horretatik, ereduzko fitxa bat egin dugu (6.2 eranskina), jarduera bakoitzaren inguruko informazioa zehaztea errazteko (arduradunak, partaideak, erronka nagusiak, aurrekontua...).

| ESKUALDE-EREMUA | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **FOROAK** | **KOORDINATZAILEA** | **KIDEAK** | **FUNTZIOAK** | **FUNTZIONAMENDU-JARRAIBIDEAK** |
| **LGEko Zuzendaritza Batzordea** | Lehendakaria | Batzordeko kideak | - Eskualdeko LGP, Urteko Kudeaketa Plana (UKP), aurrekontua eta memoriak onartzea. Onartzea Batzarrari badagokio, proposamena Zuzendaritza Batzordeak egingo du.<br>- Eskualdeko LGP egikaritzen dela zaintzea.<br>- Kide bakoitzak dagokion lan-taldean parte hartzea.<br>- LGP gizarteratzea. | - UKP eta aurreko urteko memoria onartzeko urteko bilera.<br>- Urtean bi bilera,<br>• urtero planifikatutakoaren segimendua eta balorazioa egiteko,<br>• LGPen garapenari eragiten dioten ezusteko eta aukerak lantzeko eta kudeatzeko,<br>• eta LGP gizarteratzeko ekintzak zehazteko. |
| **Eskualdeko LGP bakoitzeko Koordinazio Taldea** | LGEetako gerente eta lehendakariak | Koordinazio Taldearen oinarrizko egitura: LGEko gerentea eta/edo teknikaria eta HAZIko teknikaria.<br><br>Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundietako teknikariak, premien/gaien arabera.<br><br>LGEko Batzorde edo Batzarreko kideren bat (hautazkoa). | - LGPren eskualde-ikuspegiari eusten zaiola ziurtatzea eta, horretarako, eskualdeko lan-arloak koordinatzea eta eskualdeko agente guztien topaketa-foroak sortzea.<br>- Interes-taldeekin solaskide gisa aritzea, eremu bakoitzari dagozkion gaiak lantzeko eta eskualdeko LGPren egikaritze-maila zein den jakiteko.<br>• Zuzendaritza Batzordearekin.<br>• Orientazio Estrategikorako Taldearekin, eskualdea eta EAEko landa-garapeneko politikak koordinatzeko.<br>• Eskualdeko agenteekin.<br>• Gizartearekin, oro har.<br>- LGP gizarteratzea. Urteko Gizarteratze Plana.<br>- LGP egikaritzea eta segimendua egitea, egikaritzeko metodologiari jarraikiz:<br>• Urteko Kudeaketa Plana egitea.<br>• Ebaluazio-memoria.<br>• Lan-arlo estrategiko bakoitzeko Dinamizazio Taldeak sortzea eta funtzionamendu-jarraibideak ezartzea (eskualdeetan, nahi izanez gero, dinamizazio-taldeak sortu ahal izango dituzte).<br>• Funtzio horien garapenarekin zerikusia duten behar adina dokumentu egitea eta koordinatzea erraztea.<br>- Eskualdeko Landa Garapenaren Antena. LGPren garapenari eragiten dioten ezusteko eta aukerak zehaztea, lantzea eta kudeatzea.<br>- Eskualde arteko lotura eta beste eskualde batzuekiko koordinazioa, lan-arlo komunetan (lankidetza-arloak zehaztea eta kudeatzea). | LGP Gizarteratzeko Plana egiten eta dinamizatzen parte hartzea, Orientazio eta Koordinazio Estrategikorako Taldearekin batera.<br><br>Bilerak: parte hartzea eta informazioa ematea, behar izanez gero:<br>- Koordinazio Taldearen barne-bilerak, premien arabera, LGPri eragiten dioten ezusteko eta aukerez hitz egiteko eta dagozkien taldeetan proposamenak aurkezteko.<br>- Lan-arloetan Dinamizazio Taldeak sortu gero, eskualdeko LGPren segimendua egiteko bilerak, premien arabera (beste talde batzuentzat garrantzitsuak diren gaiak biltzea eta ezagutzera ematea, memoriak eta UKPak prestatzea…).<br>- Orientazio Estrategikorako Taldeak deitutako bileretara bertaratzea.<br>- Landa Garapeneko Euskal Sarearen bilera eta ekitaldietan modu aktiboan parte hartzea. |

| ESKUALDE-EREMUA | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **FOROAK** | **KOORDINATZAILEA** | **KIDEAK** | **FUNTZIOAK** | **FUNTZIONAMENDU-JARRAIBIDEAK** |
| **LGEko Zuzendaritza Batzordea** | Lehendakaria | Batzordeko kideak | - Eskualdeko LGP, Urteko Kudeaketa Plana (UKP), aurrekontua eta memoriak onartzea. Onartzea Batzarrari badagokio, proposamena Zuzendaritza Batzordeak egingo du.<br>- Eskualdeko LGP egikaritzen dela zaintzea.<br>- Kide bakoitzak dagokion lan-taldean parte hartzea.<br>- LGP gizarteratzea. | - UKP eta aurreko urteko memoria onartzeko urteko bilera.<br>- Urtean bi bilera,<br>• urtero planifikatutakoaren segimendua eta balorazioa egiteko,<br>• LGPen garapenari eragiten dioten ezusteko eta aukerak lantzeko eta kudeatzeko,<br>• eta LGP gizarteratzeko ekintzak zehazteko. |
| **Eskualdeko LGP bakoitzeko Koordinazio Taldea** | LGEetako gerente eta lehendakariak | Koordinazio Taldearen oinarrizko egitura: LGEko gerentea eta/edo teknikaria eta HAZIko teknikaria.<br><br>Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundietako teknikariak, premien/gaien arabera.<br><br>LGEko Batzorde edo Batzarreko kideren bat (hautazkoa). | - LGPren eskualde-ikuspegiari eusten zaiola ziurtatzea eta, horretarako, eskualdeko lan-arloak koordinatzea eta eskualdeko agente guztien topaketa-foroak sortzea.<br>- Interes-taldeekin solaskide gisa aritzea, eremu bakoitzari dagozkion gaiak lantzeko eta eskualdeko LGPren egikaritze-maila zein den jakiteko.<br>• Zuzendaritza Batzordearekin.<br>• Orientazio Estrategikorako Taldearekin, eskualdea eta EAEko landa-garapeneko politikak koordinatzeko.<br>• Eskualdeko agenteekin.<br>• Gizartearekin, oro har.<br>- LGP gizarteratzea. Urteko Gizarteratze Plana.<br>- LGP egikaritzea eta segimendua egitea, egikaritzeko metodologiari jarraikiz:<br>• Urteko Kudeaketa Plana egitea.<br>• Ebaluazio-memoria.<br>• Lan-arlo estrategiko bakoitzeko Dinamizazio Taldeak sortzea eta funtzionamendu-jarraibideak ezartzea (eskualdeetan, nahi izanez gero, dinamizazio-taldeak sortu ahal izango dituzte).<br>• Funtzio horien garapenarekin zerikusia duten behar adina dokumentu egitea eta koordinatzea erraztea.<br>- Eskualdeko Landa Garapenaren Antena. LGPren garapenari eragiten dioten ezusteko eta aukerak zehaztea, lantzea eta kudeatzea.<br>- Eskualde arteko lotura eta beste eskualde batzuekiko koordinazioa, lan-arlo komunetan (lankidetza-arloak zehaztea eta kudeatzea). | LGP Gizarteratzeko Plana egiten eta dinamizatzen parte hartzea, Orientazio eta Koordinazio Estrategikorako Taldearekin batera.<br><br>Bilerak: parte hartzea eta informazioa ematea, behar izanez gero:<br>- Koordinazio Taldearen barne-bilerak, premien arabera, LGPri eragiten dioten ezusteko eta aukerez hitz egiteko eta dagozkien taldeetan proposamenak aurkezteko.<br>- Lan-arloetan Dinamizazio Taldeak sortu gero, eskualdeko LGPren segimendua egiteko bilerak, premien arabera (beste talde batzuentzat garrantzitsuak diren gaiak biltzea eta ezagutzera ematea, memoriak eta UKPak prestatzea…).<br>- Orientazio Estrategikorako Taldeak deitutako bileretara bertaratzea.<br>- Landa Garapeneko Euskal Sarearen bilera eta ekitaldietan modu aktiboan parte hartzea. |

| ESKUALDE-EREMUA, HAUTAZKOAK | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **FOROAK** | **KOORDINATZAILEA** | **KIDEAK** | **FUNTZIOAK** | **FUNTZIONAMENDU-JARRAIBIDEAK** |
| **Arlo Estrategikoaren Dinamizazio Taldea** | LGEko gerentea (edo hark eskuordetutako teknikaria) edo Zuzendaritza Batzordeko kide bat edo arlo estrategiko horretan eskumena duen erakundeko ordezkari bat. | Arlo horretako KOORDINATZAILEA eta beste bi lagun.<br><br>LGEko Zuzendaritza Batzordeko/Batzarreko kideak sartzea interesgarria da.<br><br>Kide-kopurua sortzen diren proiektuen araberakoa izango da (prozesuak eta egikaritzeak irauten duen denboran aldatu egingo da). | - LGEk sustatutako ekimen/proiektu bakoitzerako lan-taldeak zehaztea eta eratzea erraztea. Baliabideak aurkitzea.<br>- Arlo estrategikoarekin zerikusia duten gaietan, eskualdeko LGPren Koordinazio Taldearekin solaskide gisa jardutea. Informazio garrantzitsua ematea eta jasotzea.<br>- Lurraldean arlo estrategikoarekin zerikusia duten eskari eta aukeren antena izatea eta eskualdean dauden proiektu eta ekimenen zorroa eguneratuta edukitzea.<br>- Beste eskualde batzuekin batera lan egitea arlo estrategikoarekin zerikusia duten lankidetza-proiektuetan (edo zeregin hori eskuordetzea).<br>- Dokumentazioa.<br>• Funtzio horien garapenarekin zerikusia duten behar adina dokumentu egitea eta koordinatzea erraztea.<br>• Arlo estrategikoarekin zerikusia duten plan eta programak eta agente-sarea eguneratzea.<br>- Ardura zuzenean LGEko kideren bati ez dagokionean, arlo estrategiko horretan parte hartzea eta LGPn jasotako landa-garapenaren ikuspegiari eusten zaiola ziurtatzea.<br>- Lan-ildo eta ekimenen lehenespena proposatzea.<br>- Dagozkien ekimenetan parte hartzea.<br>- Egin beharreko lanean zeharkako jarraibideak sartzea (berdintasuna, iraunkortasuna, koordinazioa…).<br>- Lantzeko ekimen berriak proposatzea. | - Barne-bilerak, premien arabera eta proiektu-talde bakoitzaren informazioa oinarritzat hartuta.<br>- Bilera edo ekitaldi bateratuak arlo estrategikoko proiektu-taldeekin.<br>- Bilera edo ekitaldiak eskualdeko agenteekin, proiektuen ideiez eta proposamenez hitz egiteko, arlo estrategiko horretan eskualdeak dituen premien arabera.<br>- Bilerak beste eskualde batzuetako antzeko arloetako Dinamizazio Taldeekin, premien arabera. |
| *Dinamizazio Talderik sortzen ez bada, Koordinazio Taldea arduratuko da funtzio horiez eta funtzionamendu-jarraibideak LGPren Koordinazio Taldearenetan integratuko dira. | | | | |

# 4. *ABIAPUNTUKO DIAGNOSTIKOA*

## *4.1. AMIA eguneratua*

Eskualdeko landa-eremuen gaur egungo egoera aztertzeko prestatu da AMIA matrize hau. Bertan agertzen dira egun **garapen-prozesuan parte hartzen dute barne-faktoreak** (ahuleziak eta indarrak) nahiz **kanpo-faktoreak** (mehatxuak eta aukerak).

Honako hauek dira faktore horien definizioak:

**AHULEZIAK:** Eskualdearen garapen egokia oztopatzen duten berezko elementuak eta alderdiak dira.

**MEHATXUAK:** Eskualdetik kanpoko egoera negatiboak dira, eskualdean eragina izan dezaketenak. Horregatik, eragin negatiboa badute, beharrezkoa izan daiteke horiek saihesteko estrategia egokia diseinatzea.

**INDARRAK:** Eskualdea gainerako eskualdeetatik bereizten duten barneko elementu positiboak eta eskualdearen barne-ezaugarriak eta izaera positiboa nabarmentzen dute.

**AUKERAK:** Ingurunean sortutako faktore positiboak dira, identifikatu ondoren, aprobetxatzeko aukera ematen dutenak.

## AHULEZIAK

AH.1. Eskualdea ez da homogeneoa: udalerrien errealitateak eta premiak oso desberdinak dira.

AH.2. Turismo- eta natura-baliabide garrantzitsuenak (urtegiak eta parke naturalak) kudeatzeko ahalmen eskasa dute.

AH.3. Industria-jardueraren garapena eskasa da eta enpresa-ekimen gutxi daude.

AH.4. Nekazaritza-elikagaien industria oso gutxi garatuta dago: merkaturatze-kanalak zehaztu gabe daude eta eraldatu gabeko produktuek balio erantsi eskasa dute.

AH.5. Nekazaritza-bokazioa duten lurren jabeek hirigintza-presio handia jasaten dute eta horrek arriskuan jartzen du nekazaritza-ustiategien iraupena.

AH.6. Abeltzaintza-ustiategiak utzi egiten dituzte, ez dago txandaketarik.

AH.7. Zigoitia, Urkabustaiz, Aramaio eta Zuian bidaiarien garraioak hutsuneak ditu: ordutegiak, helmugak eta maiztasuna. Gainera, Urkabustaiztik trenbidea pasatzen da, baina ez dago tren-zerbitzurik.

AH.8. Gizarte-, osasun- eta zerbitzu-arloetan gabeziak daude: espezialista gutxi daude (pediatria, ginekologia, adindu eta haurrentzako arreta...), ordutegiak, ordezkapenak eta abar. Eskualdez gaindiko erakundeen mende daude.

AH.9. Eskualdean ez dute elkarlanerako ikuspegirik (maila instituzional, politiko eta teknikoak) eta eskualdea kohesionatzeko aukera eta ardatz bikain izan daitezkeen kultura-, hezkuntza- eta turismo-proiektuak antolatzeko eskualde-izaera falta da.

AH.10. Produktu turistikoa zehatza da, baina baliabideak falta dira eta eskualdeko agente turistikoek ez dute elkarrekin lan egiten produktuak garatzeko, martxan jartzeko eta merkaturatzeko.

AH.11. Eskualdeko biztanleriaren parte batek turistak hartzeko errezeloak ditu (Zuia inguruan salbu).

## MEHATXUAK

M.1. Ez dago nekazari berriek lurrak eskuratzea, eskualdatzea eta erabiltzea errazteko kudeaketa-politikarik.

M.2. Ingurumen-politikak murriztaileegiak dira, batez ere lehen sektorean (abeltzaintza estentsiboa). Politika hutsak: batzuetan ez dute eduki praktikorik, muga orokorrak jartzen dituzte.

M.3. Eskualdea, landa-eremua eta lehen sektorea errespetatzen ez dituzten bisitari ugari heltzen dira, bereziki garai zehatzetan: perretxiko-garaian, elurteak izaten direnean, udaran (urtegietara), igandeetan eta abar.

M.4. Ez dago gazteentzako etxebizitza publiko erakargarriak sustatzeko politika aktiborik.

M.5. Kultura, Ongizate, Gizarte, Osasun eta Etxebizitza Sailak ez dira koordinatzen eskualdeko gizarte-zerbitzuak eta politikak aurkezteko (adibidez: etxebizitzaren ingurukoak).

M.6. Gasteizen eta Arrasaten prestakuntza-eskaintza zabala eta irisgarria denez, zaila da eskualdean prestakuntza-proiektuak martxan jartzea eta garatzea.

M.7. Eskualdeko baliabide naturalen kudeaketa ez dago eskualdearen esku, baizik eta eskualdez gaindiko erakundeen esku (Arabako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Ebroko Konfederazio Hidrografikoa eta abar).

M.8. Ingurumenak eta lur-erabilerak mehatxu handiak dituzte: abiadura handiko trena eta haustura hidraulikoa.

## INDARRAK

I.1. Biztanleriak hazteko joera du: eskualdeko biztanle gazteek bertan geratu nahi dute, etxebizitzak garesti badaude ere.
I.2. Tradizioz bigarren etxebizitzako eremu izan direnak lehen etxebizitzako eremu bihurtzen ari dira: Zigoitia, Zuia eta Urkabustaiz (eskualdearen mendebaldea, N-622 errepideak zeharkatzen duena).
I.3. Lehen sektorea baloratu eta aintzat hartzen dute.
I.4. Lehen sektoreak profesionalizatzeko joera du (gazteak) eta komertzializazio-formula berriak daude.
I.5. Nekazariei frutagintza eta baratzezaintza berreskuratzea interesatzen zaie: sagarrondoak, fruta-arbolak eta abar mantentzea, berreskuratzea eta zaintzea. Paisaiari eusten laguntzeko modu ona da.
I.6. Lehen sektoreko agenteek nekazaritza-elikagaien merkaturatzearekin eta eraldaketarekin zerikusia duten garapen-ideiak gauzatu ahal izateko laguntzak eskatu dituzte.
I.7. Turismo-ahalmen handia du, paisaia-inguruneagatik, aberastasun historiko eta monumentalagatik eta parke naturaletarako sarbideak daudelako: Gorbeiako Parke Naturalera Sarria eta Zaratetik (Zuia) eta Murua eta Etxaguenetik (Zigoitia), eta Urkiolako Parke Naturalera Oletatik (Aramaio).
I.8. Herri batzuetan bidezidorrak mantentzen dituzte, garbiketa-lanetarako.
I.9. Zuiako Kuadrillak eta Landa Garapenerako Elkarteak elkarrekin lan egiten dute, egitura estrategiko gisa, eskualdea garatzea sustatzeko eta hainbat erakunde eta sektore koordinatzeko.

## AUKERAK

AU.1. Errepide bidezko komunikazio-sarea ona da.
AU.2. Enpresa-sare garrantzitsu batetik gertu dago. Ostatu, jatetxe eta dendentzako merkatu potentzial handia dago.
AU.3. Industria-jarduerako zentro garrantzitsuetatik eta hirigune handietatik (Arrasate, Gasteiz...) gertu dago.
AU.4. Informazio- eta komunikazio-teknologia berriak (IKT) eskura dituzte eta ekonomia-jarduera garatzeko pizgarri izan daitezke: abiadura handiko interneterako konexioa, estaldura mugikorra, wifi eta abar.
AU.5. EUSKARA eskualdearen kohesio eta nortasunaren ardatz gisa.
AU.6. Nekazaritzako eta basogintzako lurzoruaren Lurralde Plan Sektoriala lantzen ari dira.
AU.7. Lurralde- eta hirigintza-antolamenduko araudiaren lehentasunetako bat da etxebizitza publikoak sustatzea, herrien idiosinkrasiari eustea eta ekipamenduen irisgarritasuna eta maila ziurtatzea.
AU.8. LAGen arabera, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza nagusiki tokikoak dira, eta Bigarren Hezkuntza (derrigorrezkoa zein derrigorrezkoaren ondokoa) eskualdekoa edo eskualde azpikoa, biztanleriaren eta eremu funtzionalen azaleraren araberakoa.
AU.9. Eskualdea turismo aldetik erakargarria da eta urte osoan ditu zerbitzuak (turistak, familia-aisia, kultura, enpresak...).
AU.10. Landa-eremuan nekazaritzako, basogintzako eta naturako balioak babesteko interesa dute. Bertako espezie eta arrazak zaintzea eta berreskuratzea.

BORRADOR

## 4.2. Balio diferentziala

Indartuz gero eskualdearen balio bereizgarri izan daitezkeen landa-eremuaren faktore positibo nagusiak dira:

1. **PAISAIA- ETA INGURUMEN-ABERASTASUNA: GORBEIA, URTEGIAK...**
2. **LEHEN SEKTOREA PROFESIONALA DA ETA ABELTZAINTZAK PISU HANDIA DU.**
3. **BIZI-KALITATEA ETA KOMUNIKAZIO-SAREA ONAK DIRA.**
4. **GORBEIA MENDIA ERREFERENTEA DA.**
5. **UDALERRIAK ANITZAK DIRA ETA, ORO HAR, ESKUALDEA ABERASTEN DUTE.**
6. **PAISAIA-HERENTZIA (OSO BALORATUA, EUSKAL IKONOAK), LEHEN SEKTOREARI ESKER.**



Araban, Gobernua Inguruetan hitz egiten da egunero euskaraz gehien eta, gainera, euskal kondaira eta ohitura ugariri eutsi diete.

Eskualdearen azaleraren % 30 parke natural gisa babestua dago (Gorbeiako eta Urkiolako Parke Naturalak) eta hiru aintzira artifizial daude; aintzira horietan jarduera ugari eskaintzen dituzte eta inguruan aisia-eremuak daude.

Gorbeiako mendigunea EAEko parke natural handiena da, 20.016 hektarea ditu. Parkearen % 62 Araban dago, zehazki eskualde honetan. Gorbeia Araba eta Bizkaia artean dago, izugarri handia eta dotorea da, eskualdearentzat eredu da eta haren nortasuna baldintzatzen du, arlo askotan (turismoa, kultura, lehen sektorea, ingurumena eta abar).

Gaur egun askotariko jarduerak (aisia, kirola, hezkuntza eta abar) gauzatzeko agertokitzat dugun natura-ingurune bikain hori tokiko biztanleentzat baliabide ekonomikoen iturri izan da, eta da oraindik ere. Gauzak horrela, natura-inguruneak baldintzatu ditu eskualdeko jarduera ekonomiko asko. Izan ere, natura-baliabideak belaunaldi askok ustiatu dituzte, eta bizimodu berezi bat sortu dute, erro sakonekoa eta tradizioz josia; bizimodu hori, funtsean, eskualdearen idiosinkrasiaren bereizgarria da. Horrela bakarrik uler daiteke halako natura-ingurune pribilegiatua.

Horrez gain, eskualdea hirigune garrantzitsuetatik gertu dago (Gasteiz, Bilbo eta Arrasate), komunikabide oso onak ditu (AP-68, AP1, N-I, N240, N622) eta, gainera, udalerriak ederrak eta lasaiak dira; ondorioz, biztanleek bizi-kalitate ona dute.

## 4.3. Garapenerako oztopoak

Eskualdeko landa-eremua bilakatzea eragotzi dezaketen eta eragin kaltegarriak izan ditzaketen faktore negatibo nagusiak dira:

1. **LURZORUAREN GAINEKO PRESIO HANDIA: AHT, ERREPIDEAK, HAUSTURA HIDRAULIKOA...**
2. **LURZORUA GARESTIA DA (BAI ETXEBIZITZAK, BAI JARDUERA EKONOMIKOAK JARTZEKO).**
3. **EZ DUTE PLANGINTZA ETA LANA KOORDINATZEKO IKUSPEGIRIK (GIZARTEA, KULTURA, OSASUNA...).**
4. **ESKUALDEA ANITZA DA ETA ERREALITATEAK ASKOTARIKOAK.**
5. **BIZTANLEEK ESKUALDETIK KANPO (GASTEIZEN, ARRASATEN...) LORTZEN DITUZTE ERRENTAK.**
6. **NATURA-BALIABIDEAK KANPOAN KUDEATZEN DITUZTE (ESKUALDEZ GAINDIKO KUDEAKETA): URTEGIAK, PARKE NATURALAK ETA ABAR.**

Gorbeia Inguruak eskualdearen kokapena estrategikoa da: iparraldean Bizkaiarekin eta Gipuzkoarekin egiten du muga, hegoaldean Gasteizekin eta Arabako Lautadarekin, ekialdean Gipuzkoarekin eta Arabako Lautadarekin eta mendebaldean Aiarako Kuadrillarekin. Hori dela eta, Euskal Herrian azken urteetan egin diren komunikazio-azpiegitura handien proiektuek (AP1 eta AHT) eragin nabarmena izan dute eskualdeko lurzoruaren erabileran. Horrez gain, Gasteiz gertu dago eta, ondorioz, lurzoruaren balioa handia da. Gauzak horrela, zaila da etxebizitza-proiektuak arrazoizko prezioetan egitea, gazteak beren udalerrietan gera daitezen, eta baita biztanleek negozio txikiak jartzea ere.

Azpimarratu beharra daukagu, gainera, eskualdea bi ardatz handik zatitzen dutela, N622 eta N240 errepideek, hain zuzen ere, eta udalerri bakoitzak bere errealitatea duela. Ondorioz, batzuetan zaila da erakundeek elkarrekin lana koordinatzea eta antolatzea.



Eskualdean udalerri bat bereizi beharra daukagu: Aramaio. Izan ere, biztanleak Gorbeia Inguruetako eskualdekoak (Zuiako Kuadrilla) eta arabarrak sentitzen diren arren, kulturaren, euskalduntze-mailaren eta ekonomia-jardueraren aldetik Gipuzkoako Deba Garaiko eskualdearen antzekoagoa da.

Goiain industrialdea eskualdean dago, eta beste industrialde txiki batzuk ere badaude, baina biztanle gehienek eskualdetik kanpo lan egiten dute.

Azkenik, eskualdeko natura-baliabide garrantzitsuenak Arabako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta beste erakunde batzuek (esate batera, URAk) kudeatzen dituzte eta, beraz, zaila da baliabide horietan edozein jarduera, ekimen eta kudeaketa-lan gauzatzea.

## 5. *ESPARRU ESTRATEGIKOA*

### *5.1. Mapa estrategikoa*

<u>*2020rako ikuspegia:*</u> etorkizunean eskualdeko landa-eremua zer izatea nahi dugun islatzen duen agertokia da. Kasu zehatz horretan, 2020ra begira jarri dugu helmuga.

> ***Eskualdea jasangarria, bateratua eta euskalduna izatea nahi dugu, nortasun bereizgarri bat edukitzea eta dinamismo eta partaidetza soziokulturala dinamizatzea.***
>
> ***Nahi dugu, halaber, sektore guztietako ekonomia modu orekatuan garatzea, Gorbeiako eskaintza turistikoa zabala eta egoki egituratua eta koordinatua izatea eta biztanleen zerbitzuak eta bizi-kalitatea bermatzea.***

| Helburu orokorrak | Adierazleak | GAUR EGUNGO BALIOA |
|---|---|---|
| • Sektore ekonomiko guztiak sustatzea, modu arduratsu eta jasangarrian. | ○ Biztanleko BPGd.<br>○ Batez besteko errenta pertsonala (sexuaren arabera).<br>○ Langabezia-tasa.<br>○ Langabe-kopurua (sexuaren, adinaren eta jarduera-adarraren arabera).<br>○ Nekazaritza-azalera erabilgarria.<br>○ Nekazaritzako BEGd.<br>○ Nekazaritzako ustiategi-kopurua (NPBko diru-laguntzen erregistro administratiboa).<br>○ Eraldaketa-prozesuak gauzatzen dituzten nekazaritza-ustiategiak (Jarduera Ekonomikoen Direktorioa).<br>○ Establezimendu-kopurua, sektoreka.<br>○ Enplegu-kopurua, sektoreka. | 40.403<br>23.162<br>%6,83<br>381<br><br>15.106,87<br>11.881<br>494<br><br>12<br><br>991<br>5753 |
| • Gorbeia helmuga turistiko gisa finkatzea. | ○ Landa-eremuan ostatu hartzeko establezimenduen kopurua.<br>○ Landa-eremuan ostatu har dezaketen pertsonen kopurua.<br><br>○ Gorbeialde LGErekin elkarlanean sustatutako proiektu-kopurua (Gorbeia Central Park, Gorbeia zure etxean, Gorbeia Ezagutu, Euskadi | 18<br><br>292<br><br><br>4 |

| | | |
|---|---|---|
| | Gastronomika).<br><br>○ Bisitari-kopurua (turismo-bulegoko, museoetako eta Parketxeko datuak), 2016ko urtarrila.<br><br>○ Ostalaritza-okupazioa (2016ko urtarrila).<br><br>○ Web-orriko bisita-kopurua.<br><br>○ Turismo-mahaien kopurua eta partaidetza.<br><br>○ Mahai azpisektorialen kopurua edo produktu/proiektu kluben bileren kopurua.<br><br>○ Turismo-programetan parte hartzen duten enpresen kopurua<br>▪ GZE<br>▪ SICTED<br>▪ TICs<br>▪ ECOETIQUETA<br><br>○ Udalek, AFAk eta Eusko Jaurlaritzak beren gain hartzen duten eskualde osoko turismo-aurrekontuaren portzentajea. | *2351 (12,71 Egu/bisita)*<br>*935 (9,84 egun/bisita)*<br>*6.170*<br>*14.960*<br>*182.938*<br><br>%27,26<br><br>0<br><br>2<br><br>5<br><br>*19*<br>*14*<br>*0*<br>*1*<br><br>% 8<br>% 46<br>% 46 |
| • Nekazaritza-ustiategi aktibo eta profesionalen kopuruari eustea. | ○ NLE.<br>○ Establezimendu-kopurua, sektoreka.<br>○ Enplegu-kopurua, sektoreka.<br><br>○ Nekazaritzako balio erantsi gordina.<br><br>○ Nekazaritzako ustiategi-kopurua (NPBko diru-laguntzen erregistro administratiboa).<br>○ Eraldaketa-prozesuak gauzatzen dituzten nekazaritza-ustiategiak (Jarduera Ekonomikoen Direktorioa). | 15.106,87<br>177<br>333<br><br>11.881<br><br>494<br><br>12 |
| • Lurralde edo eskualde berean eskumen zuzenak dituzten agente eta erakunde publiko eta | ○ LGEko Batzarraren bilera-kopurua.<br>○ Zuzendaritza Batzordearen bilera-kopurua.<br><br>○ Elkarlanaren eta lankidetzaren alde | 2<br><br>1<br><br>1 |

| | | |
|---|---|---|
| pribatuen koordinazioa, inplikazioa eta partaidetza hobetzea. | elkarrekin sustatutako proiektuen kopurua. | |
| • Eskualdean euskaraz jakitea eta hitz egitea sustatzea. | ○ 2011ko euskaldunen %.<br>○ 2011ko ia euskaldunen %. | 41<br>24 |
| • Gaur egungo **bizi-kalitatea** bermatzea eta hobekuntza guztiak aplikatzea (eguneratzea, berritzea eta modernizatzea). | ○ Udalen arteko lankidetza-hitzarmenen kopurua. | 0 |

<u>Zeharkako ardatzak</u>*: ardatz hauek, euren izaeragatik arlo estrategiko zehatz batetik hedatu eta modu horizontal batean, eskualdeko landa garapen programetan landuko dira.*

**1. Genero-ikuspegia**

Sexuaren arabera banaka daitezkeen adierazle guztietan emakume-kopurua eta gizon-kopurua bereiz adierazi behar dira.

Gainera, emakumeen ordezkagarritasunaren bilakaera eta tokiko erakundeen konpromisoa neurtuko dira, adierazle hauen bidez:

| ADIERAZLEAK | GAUR EGUNGO BALIOA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | KONTZENTRAZIO-INDIZEA | | FEMINIZAZIO-INDIZEA | TASA | | GENERO-ARRAILA |
| | EMAKUMEAK | GIZONAK | | EMAKUMEAK | GIZONAK | |
| • Udalbatzen antolamendua sexuaren arabera | *0,02* | *0,04* | *0,40* | *28%* | *72%* | ***-43%*** |
| • LGEko Zuzendaritza Batzordearen antolamendua sexuaren arabera | *0,05* | *0,06* | *0,33* | *25%* | *75%* | ***-50%*** |

| Adierazlea | Gaur egungo balioa | Oharrak |
|---|---|---|
| • Eskualdean berdintasun-planak dituzten udalerrien portzentajea. | 0 | - |

2. **Jasangarritasuna:** Tokiko erakundeen konpromisoa adierazle hauen bidez neurtuko da:

| HELBURUAK | ADIERAZLEAK | EGUNGO DATUA |
|---|---|---|
| • Energia aldetik iraunkorrak diren ekimenak sustatzea. | ○ Energia aurreztea helburu duten ekimen publikoen kopurua.<br>○ Energia berriztagarriak erabiltzea helburu duten ekimen publikoen kopurua. | 0<br>0 |
| • Erakundeen konpromisoa iraunkortasunarekin. | ○ Tokiko Agenda 21 martxan duten udalen %.<br>○ Kontratazio-agirietan "erosketa berdeko" irizpideak aplikatzen dituzten erakunde instituzionalen %. | 0<br>0 |
| • Gizartearen partaidetza eskualdeko LGPn. | ○ Eskualdeko LGP gizarteratzeko ekintza-kopurua (informazioa edo partaidetza).[2]<br>○ Sentsibilizazio-ekintza horietako bertaratu/partaide kopurua. | 0<br>0 |

3. **Lankidetza**

Eskualdez gaindiko elkarlanaren sustapena adierazle hauen bidez neurtuko da:

| HELBURUA | ADIERAZLEAK |
|---|---|
| • Landa-eremuen eta landa-garapeneko eragileen arteko sinergiak eta aliantzak gehitzea. | ○ LGEk parte hartzen duen eskualdez gaindiko lankidetza-proiektuen kopurua.<br>○ LGE Landa Garapeneko Euskal Sarearen deialdietara bertaratzea. |

4. **Eskualde-kohesioa eta nortasuna**

Lurraldeko zerbitzuen koordinazioa eta kudeaketa (tokiko biztanleentzako zein bisitarientzako zerbitzuak: elikagaiak, turismoa, aisia, kirola, adinduak…)

| HELBURUA | ADIERAZLEAK |
|---|---|
| • Añanako eskualdearekiko pertenentzia-sentimendua eta eskualde-nortasuna gehitzea. | ○ Ekimen-kopurua. |

[2] *LGP martxan jartzen denetik egiten diren ekintza eta topaketak kontatuko dira, lan-foro hauei dagozkienak aparte utzita: LGEko Zuzendaritza Batzordea, LGPko Koordinazio Taldea eta Lurralde Mahaiak. Ikusi 3.2 kapitulua, egikaritzeko metodologiari buruzkoa.*

## *Arlo estrategikoak:*

1. **SEKTORE EKONOMIKO GUZTIEN GARAPEN EKONOMIKO ARDURATSU ETA JASANGARRIA: lehen sektorea, industria, turismoa, zerbitzuak, ekintzailetza…**
2. **ESKUALDE-KOHESIOA: dinamismo soziokulturala, partaidetza aktiboa, berezko nortasuna eta euskaltasun-sentimendua.**
3. **BIZI-KALITATEA MANTENTZEA ETA HOBETZEA.**



ARLO ESTRATEGIKOAK
SEKTORE EKONOMIKO GUZTIEN GARAPEN EKONOMIKO ARDURATSU ETA JASANGARRIA: lehen sektorea, industria, turismoa, zerbitzuak, ekintzailetza...
ESKUALDE-KOHESIOA: dinamismo soziokulturala, partaidetza aktiboa, berezko nortasuna eta euskaltasun-sentimendua.
HELBURU OROKORRAK
2020rako IKUSPEGIA
GORBEIA INGURUAK...Eskualdea jasangarria, bateratua eta euskalduna izatea nahi dugu, nortasun bereizgarri bat edukitzea eta dinamismo eta partaidetza soziokulturala dinamizatzea. Nahi dugu, halaber, sektore guztietako ekonomia modu orekatuan garatzea, Gorbeiako eskaintza turistikoa zabala eta egoki egituratua eta koordinatua izatea eta biztanleen zerbitzuak eta bizi-kalitatea bermatzea.
BIZI-KALITATEA MANTENTZEA ETA HOBETZEA
Nekazaritza-ustiategi aktibo eta profesionalen kopuruari eustea
Eskualdean euskaraz jakitea eta hitz egitea sustatzea
Sektore ekonomiko guztiak sustatzea, modu arduratsu eta jasangarrian.
Gorbeia helmuga turistiko gisa finkatzea.
Lurralde edo eskualde berean eskumen zuzenak dituzten agente eta erakunde publiko eta pribatuen koordinazioa, inplikazioa eta partaidetza hobetzea.
Gaur egungo bizi-kalitatea bermatzea eta hobekuntza guztiak aplikatzea (eguneratzea, berritzea eta modernizatzea).

## 5.1. ARLOKO FITXAK

### 1. SEKTORE EKONOMIKO GUZTIEN GARAPEN EKONOMIKO ARDURATSU ETA JASANGARRIA: lehen sektorea, industria, turismoa, zerbitzuak, ekintzailetza…

| HELBURU ZEHATZAK | ADIERAZLEAK | EGUNGO BALOREA |
|---|---|---|
| • Lehen sektorean belaunaldi-txandaketa sustatzea eta jende berria sartzea erraztea. | ○ GAZTENEK programan 2015ean egindako tutoretza eta/edo laguntzen kopurua.<br><br>○ Jende berria sartzea sustatzeko ekintza espezifikoen kopurua. | 5<br><br><br><br>0 |
| • Enplegu endogenoa sortzea eta garatzea, ekintzailetza, kontratazioak eta prestakuntza sustatuz/babestuz. | ○ Udaletako EJZn egindako alta-kopurua:<br>○ Aramaio<br>○ Arratzua-Ubarrundia<br>○ Legutio<br>○ Urkabustaiz<br>○ Zigoitia<br>○ Zuia<br><br>○ 2007-2015 aldian babestutako proiektu-kopurua.<br><br>✓ Erein, autoenplegua.<br>✓ Leader, inbertsio pribatua.<br>✓ Leader, lehen sektorearen dibertsifikazioa.<br>✓ Lehiatu, eraldaketa.<br><br><br>○ Eskualdeko langabe-kopurua (2014ko 4. hiruhilekoa).<br><br>○ Ekintzaileei laguntzeko 2015ean egindako ikastaroen kopurua.<br>○ Partaide-kopurua.<br><br>○ Ekintzaileei 2015ean eskainitako laguntza-kopurua. | 86<br><br>-<br><br>9<br>20<br>16<br>11<br>30<br><br><br><br><br><br>8<br>7<br>0<br><br>0<br><br><br><br><br>381<br><br><br><br>1<br><br><br>6<br><br><br><br><br>6 |
| • Sektore eta erakunde publiko guztiek eztabaida egiteko, elkarlanean aritzeko, harreman zuzena izateko eta elkarrekin lan egiteko guneak sortzea, | ○ Sortutako gune-kopurua.<br>✓ Ekintzailetza-foroa (Ostegun Ekintzaileak, Lanbide programako | 1<br><br>9 |

| | | |
|---|---|---|
| lankidetzan aritzeko premia eta aukeren arabera. | hasierako bilera).<br>✓ Barne-ekintzailetzako foroa.<br>✓ Foro sektorialak.<br>○ Partaide-kopurua.<br>○ Elkarlanean sustatutako proiektu-kopurua (Lanbide, Hazi). | 1<br>0<br>0<br>4 |

- Nekazaritza-ustiategi aktibo eta profesionalen kopuruari eustea.
- Sektore ekonomiko guztiak sustatzea, modu arduratsu eta jasangarrian.
- Lurralde edo eskualde berean eskumen zuzenak dituzten agente eta erakunde publiko eta pribatuen koordinazioa, inplikazioa eta partaidetza hobetzea.

OROKORRA

- Enplegu-programa orokor zabalago bat diseinatzea (ez bakarrik ekintzailetza edo autoenplegua sustatzeko).
- Trukeak egiteko, elkar ezagutzeko eta prestatzeko jardunaldi eta tailerrak eta bisita teknikoak antolatzea, eskualdean aplika daitezkeen esperientzia eta kasu arrakastatsuak ezagutzeko.
- Negozio berriak irekitzeagatik eta eskualdeko langabeak kontratatzeagatik hobariak ematea aztertzea.

LEHEN SEKTOREA

- Bisitarien/turisten eta nekazari eta abeltzainen arteko bizikidetza-ekintzak sustatzea.
- Gaztenek programa sustatzea.
- Eskualdean ehiza-populazioa gutxitzea. Ehiza-lizentzia gehiago ematea, denboraldia luzatzea…
- Nekazaritzako eta abeltzaintzako produktuak eraldatzeko ekipamendu kolektiboak sortzea.
- Abeltzaintza-ustiategietarako jarduera-lizentziak lortzen laguntzea.
- Nekazaritzako eta lehen sektoreko joeren gaineko prestakuntza.

ZERBITZUAK

- Enpresa teknologikoen mintegi bat sustatzea.
- Dauden landa-dendei ideia berriak garatzen laguntzea (zerbitzu- eta merkataritza-sektoreak modernizatzea, berritzea eta lehiatzeko gaitasuna gehitzea) eta, horretarako, gertuko dendak irekitzea erraztea.
- Hutsik dauden lokalak erabiltzeko hitzarmenak sustatzea (adibidez: Gorbeia merkataritza-zentroa).
- Tokiko enpresa eta ekintzaileen gida egitea, zerbitzuen arabera antolatua, eta zabaltzea.

INDUSTRIA

- Industrialdeetan libre dauden lekuak industriarako sustatzea (adibidez: Goiain).
